

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETH), 2014KO ABENDUA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %6,2 gehitu ziren 2014ko abenduan

2014an, sarrerak %2,4 gehitu dira eta gualdiak %4,0

2014ko abenduan, 160.226 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 9.318 gehiago, %6,2ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Hiru lurraldeetan gehitu ziren bidaiarien sarrerak: %7,2 Araban, %6,7 Gipuzkoan, %5,5 Bizkaian.

Gualdiak, 2014ko abenduan, 288.049; aurreko urtekoan baino 27.594, %10,6, gehiago. Gualdiek ere urte arteko bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %11,4, Bizkaian %10,6, Araban %8,8.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Abendua 2014

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2014/12	m/m-12 (%)	2014/12	m/m-12 (%)	2014/12	2013/12	plazaka		gelaka	
							2014/12	p.p.*	2014/12	p.p.*
EUSKAL AE	288.049	10,6	160.226	6,2	1,80	1,73	35,9	4,5	43,9	5,8
Estatukoak	210.952	11,4	118.569	5,8	1,78	1,69	-	-	-	-
Atzeritarrak	77.097	8,5	41.657	7,2	1,85	1,83	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	44.459	8,8	25.756	7,2	1,73	1,70	32,6	3,3	39,4	3,2
Estatukoak	37.018	12,2	21.951	9,7	1,69	1,65	-	-	-	-
Atzeritarrak	7.441	-5,4	3.805	-5,2	1,96	1,96	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	33.373	9,7	19.029	11,1	1,75	1,78	34,7	3,0	43,5	3,1
BIZKAIA	141.577	10,6	78.858	5,5	1,80	1,71	37,3	5,0	46,1	6,6
Estatukoak	102.971	9,9	58.335	3,6	1,77	1,66	-	-	-	-
Atzeritarrak	38.606	12,4	20.523	11,1	1,88	1,86	-	-	-	-
Bilbao	98.564	13,7	54.038	9,6	1,82	1,76	43,2	6,9	52,0	8,4
GIPUZKOA	102.013	11,4	55.612	6,7	1,83	1,76	35,7	4,5	43,2	6,1
Estatukoak	70.963	13,1	38.283	7,1	1,85	1,76	-	-	-	-
Atzeritarrak	31.050	7,6	17.329	5,8	1,79	1,76	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	60.341	9,9	33.533	7,1	1,80	1,75	42,0	3,7	48,7	4,6

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETH)


Estatuko bidaiariak %5,8 gehitu dira aurreko urteko abenduaren aldean eta atzerrikoak %7,2. Araban atzeritarrak %5,2 gutxitu dira eta estatukoak %9,7 gehitu. Bizkaian estatukoak %3,6 gehitu dira eta atzeritarrak %11,1. Gipuzkoan atzeritarrak %5,8 gehitu eta estatukoak %7,1.

Batez besteko egonaldia, abenduan, 1,80 egun, 2013koan 1,73 zelarik. Araban lehengo urteko 1,71 egunetik aurtengo 1,73ra; Bizkaian 1,71etik 1,80ra; Gipuzkoan 1,76tik 1,83ra.

Plazakako betetze-maila ehuneko 4,5 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2013ko abenduko %31,4tik aurtengo %35,9ra. Araban ehuneko 3,3 puntuz gehitu da, 2013ko abenduko %29,3tik

aurtengo %32,6ra. Bizkaian ehuneko 5,0 puntuz gehitu da, 2013ko abenduko %32,3tik aurtengo %37,3ra. Gipuzkoan ehuneko 4,5 puntuz gehitu da, 2013ko abenduko %31,2tik aurtengo %35,7ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Gelakako betetze-maila ehuneko 5,8 puntuz gehitu da Euskal AE osoan; okupazioa, %43,9. Araban ehuneko 3,2 puntuz gehitu da, %39,4ra; Bizkaian 6,6z, %46,1era; Gipuzkoan 6,1ez, %43,2ra.

Hotel-okupaziorik handienak abenduan Bilbon (%43,2), Donostian (%42,0), Arabako Errioxan (%35,5).

Asteko eguna aintzat hartuta, 2014ko abenduan okupaziorik handiena (%47,1) aste-bukaeretan; %32,0 lanegunetan.

Hotel-establezimenduetako 2014ko balantzea: Aurreko urtearen aldean, %2,4ko gehikuntza sarreretan eta %4,0koa gaualdietan

2014an bidaiarien sarrerak 2.424.832 izan dira, aurreko urtean baino 56.752 gehiago. Bidaiari-sarrerak %5,9 gehitu dira Araban, %4,6 Gipuzkoan; %0,4 gutxitu dira Bizkaian.

2014ko gaualdiak, 4.657.505; aurreko urtean baino 178.833.000 gehiago. Araban %3,0 gehitu ziren gaualdiak, Gipuzkoan %5,0, Bizkaian %3,5.

Bidaia-riren batez besteko egonaldia 2013ko 1,89tik 2014ko 1,92ra luzatu da. Euskal AE osorik hartuta, betetze-maila 2013ko %44,3tik 2014ko %46,4ra handitu da.

2. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaia-riren sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2014

	Gaualdiak		Bidaia-riren sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze maila (%)			
	2014	2014/2013 (%)	2014	2014/2013 (%)	2014	2013	Plazakako		Logelako	
							2013	p.p.*	2014	p.p.*
C.A. DE EUSKADI	4.657.505	4,0	2.424.832	2,4	1,92	1,89	46,4	2,1	56,3	2,6
ARABA/ÁLAVA	646.757	3,0	361.520	5,9	1,79	1,84	39,7	1,1	48,0	0,8
BIZKAIA	2.188.926	3,5	1.140.832	-0,4	1,92	1,85	46,6	2,4	58,3	3,4
GIPUZKOA	1.821.822	5,0	922.480	4,6	1,97	1,97	49,0	2,1	57,4	2,4

p.p.* = aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETH)

Euskal AEn, gelakako betetze-maila abenduko 5, 6, eta 7ko zubian, %69,5

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, bidaia-ri-sarrerak aipatu zubian, 28.350.. Sarrerok 2014ko abenduaren 5etik 7ra arte (3 gau). 53.751 gaualdi Euskal AE osoan. Plazakako betetze-maila, %65,5.

Landa-ostatu-rietako sarrerak %9,4 gehitu dira eta gaualdiak %27,4 abenduan

Euskal AEko landa-establezimenduetan abenduan 23.113 gaualdi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %27,4 gehiago. Araban %16,3ko gehikuntza, Bizkaian %40,0koa; Gipuzkoan %24,8koa.

Plazakako betetze-maila, %20,1, ehuneko 5,0 puntu gehiago 2013ko abenduan baino. Araban ehuneko 4,3 puntu gehiago, betetze-maila %19,8. Bizkaian betetze-maila %22,3, ehuneko 7,4 puntu gehiago 2013ko abenduaren aldean eta Gipuzkoan 3,8 puntu gehiago, %18,9.

Euskal AEko landa-ostatu-rietan 9.666 bidaia-ri-sarrera erregistratu ziren abenduan, %9,4 gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Araban %3,7ko gehikuntza sarreretan, Bizkaian %23,8, Gipuzkoan %2,4.

506 atzerri-ri-sarrera izan genituen, %+97,7 aurreko urtekoen aldean eta sarrera guztien %5,2. Estatuko bidaia-riren sarrerak %6,8 gehitu ziren.

Bidaia-riko batez besteko egonaldia luzatu egin zen Euskal AE osoan, 2013ko abenduaren aldean: duela urtebete 2,05 egun; aurtengoan 2,39.

3. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Abendua 2014

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2014/12	m/m-12 (%)	2014/12	m/m-12 (%)	2014/12	2013/12	2014/12	p.p.*
EUSKAL AE	23.113	27,4	9.666	9,4	2,39	2,05	20,1	5,0
Araba/Álava	4.905	16,3	1.855	3,7	2,64	2,36	19,8	4,3
Bizkaia	7.677	40,0	3.463	23,8	2,22	1,96	22,3	7,4
Gipuzkoa	10.531	24,8	4.348	2,4	2,42	1,99	18,9	3,8

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETH)

Nekazaritza-turismoaren 2014ko balantzea: Gehitu egin ziren bidaiarien sarrerak (%12,2) eta gaualdiak (%11,4)

Euskal AEko nekazaritza turismoko establezimenduetan 125.782 bidaiari sarrera izan dira 2014an, aurreko urtean baino %12,2 gehiago. Gaualdiak 326.426, 2013an baino %11,4 gehiago.

Hiru lurraldeetan gehitu ziren bidaiarien sarrerak: Gipuzkoan %6,3, Araban %10,4, Bizkaian %25,5. Gaualdiek gora hiru lurraldeetan: %8,7 Gipuzkoan, %4,7Arabak, %21,0 Bizkaian.

Bidaiariko batez besteko egonaldia 2013ko 2,61 egunetik 2014ko 2,60ra laburtu zen. Plazakako betetze-maila 2013ko %20,0tik 2014ko %23,3ra handitu.

4. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2014

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze maila (%)			
	2014	2014/2013 (%)	2014	2014/2013 (%)	2014	2013	Plazakako		Logelako	
							2013	p.p.*	2014	p.p.*
C.A. DE EUSKADI	326.426	11,4	125.782	12,2	2,60	2,61	23,3	3,3	24,8	2,9
ARABA/ÁLAVA	47.850	4,7	21.708	10,4	2,20	2,32	16,1	1,9	16,73	1,4
BIZKAIA	96.286	21,0	37.954	25,5	2,54	2,63	22,6	4,5	24,74	4,2
GIPUZKOA	182.290	8,7	66.120	6,3	2,76	2,69	26,9	3,0	28,62	2,7

p.p.* = aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETH)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua